2.– Finkatutako epean lanpostuaz jabetzen ez diren izangaiek, besterik gabe eskubidea galduko dute.

*Hirugarrena.–* Ebazpen honen bitartez izendatu den izangaia zehaztutako epean lanpostuaz jabetuko ez balitz, puntuaketa hurrenkeran, hautaketa probak gainditu dituen hurrengoak ordezkatuko du. Azken hori karrerako funtzionario izendatzea, kasua balitz, HKEEren lehendakariaren ebazpen bidez gauzatuko da, aurrez Idazkaritza Nagusiaren aurrean –horrek eskatuta- deialdian esku hartzeko eskatzen diren betekizunak kreditatu beharko dituelarik.

*Laugarrena.–* Administrazio bidean behin betikoa ez den ebazpen honen aurka interesdunek Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoari erreguzko administrazio errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote hilabeteko epean, ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Ebazpenari berariazko ebazpena eman ezean, ezetsitzat joko da.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko uztailaren 27a.

HKEEko lehendakaria,
M.ª ASUNCIÓN MACHO BERROYA.

2.– Los aspirantes que dentro del plazo establecido no tomaran posesión perderán automáticamente su derecho.

*Tercero.–* Si la aspirante nombrada por medio de esta Resolución no tomase posesión dentro del plazo establecido, será sustituida por aquel otro, por orden de puntuación, que hubiera superado las pruebas selectivas. El nombramiento de este último como funcionario de carrera se producirá, en su caso, mediante Resolución del Presidente del TVCP, previa acreditación ante la Secretaría General, a requerimiento de ésta, de los requisitos exigidos para tomar parte en la convocatoria.

*Cuarto.–* Contra la presente Resolución, que no es definitiva en vía administrativa, podrá(n) interponer recurso administrativo de súplica ante el Pleno del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en el plazo de un (1) mes, que se contará desde el día siguiente al de la fecha de publicación. La falta de resolución expresa a dicho recurso, tendrá carácter desestimatorio.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de julio de 2007.

La Presidenta del TVCP,
M.ª ASUNCIÓN MACHO BERROYA.

ERANSKINA/*ANEXO*

EKONOMILARI-AUDITOREA / *ECONOMISTA-AUDITOR*

| Hurrenkera *N.º de orden* | NAN *DNI* | Izen-abizenak *Apellidos y nombre* | Lanpostua *Puesto de trabajo* | Dotazio zk. *N.º de dotación* |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 30563558-P | García Angulo, M.ª Aranzazu | 542105 | 24 |

# Oposaketak eta Lehiaketak

## OSASUN SAILA

### 4261

ERABAKIA, 2006ko uztailaren 20koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, entitate publikoaren 2006ko lan-eskaintza publikoa onesten duena.

Administrazio Kontseiluak erabaki hau hartzeko, honakoetan aurreikusitakoa hartu du kontuan: Entitate Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 8.5.f) artikulua eta, oro har, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen Estatutu Markoari buruzko abendua-

# Oposiciones y Concursos

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### 4261

ACUERDO de 20 de julio de 2006, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por el que se aprueba la oferta pública de empleo del Ente Público para el año 2006.

El Consejo de Administración adopta el presente Acuerdo conforme a la previsión hecha en el artículo 8.5.f) del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público, así como con carácter general, conforme a las normas que en materia de personal perteneciente al Ente Público contempla la Ley 8/1997, de 26 de junio, de

ren 16ko 55/2003 Legeak entitate publikoko langileentzat ezarritako arauak.

Osasun-sektoreko Mahaiak negoziazio-prozesu berri bati ekin zion 2005. urteko bigarren seihilekoan eta, horrek, lan-eskaintza publiko berria ekarri du, kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako zerbitzuan dagoen langileriaren ordezkatze-organoei buruzko, hauteskunde-prozesua arautzeko, eta lan-baldintzak eta partaidetza erabakitzeko urriaren 6ko 304/1987 Dekretuak ezarritakoa (irailaren 4ko 228/1990 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori).

Osasun-sektoreko Mahaiaren esparruan gauzatutako negoziazio-prozesua 2006ko uztailaren 10ean bukatu zen, CCOO, SME, LAB eta UGT zentral sindikalek sinatutako akordio batekin. Prozesu horretan ezarri ziren Osakidetzaren Lan Eskaintza Publikoa egituratzeko oinarria osatuko duten baldintza orokorrak.

Adierazitakoarekin bat etorriz, zuzendari nagusiak proposatuta, eta entitate publikoaren estatutuetako 8.5.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak hauxe erabaki du:

ERABAKIA:

***Lehenengoa.***– Osakidetzako estatutupeko langile finko izateko lan-eskaintza publikorako deialdia egitea erabaki da. Erabaki honek izan beharreko ahalmen juridikoa lortu bezain laster hasiko da hautaketa-prozesuak hasteko jardueren kudeaketa.

***Bigarrena.***– Deialdi hau bukatu ondoren, beste laneskaintza publiko baterako deialdia egingo da 2008. urteko bigarren seihilekoan. Bigarren horretan, eta erabakitzen diren baldintzen arabera, erretiroko edo heriotza-bajen ondorioz sisteman hutsik geldituko lanpostuak eta Osakidetzaren egitura-plantillan sortutako lanpostu berriak sartuko dira (erakundeko enplegua sendotzeko eta zerbitzu berriak sortuz plantillaren hazkuntza garbia gauzatzeko konpromisoari erantzunez sortuak dira lanpostu berri horiek). Bigarren deialdiaren aurretik, lekualdatze-lehiaketa bat egingo da gutxienez.

***Hirugarrena.***– Honakoak dira 2006ko deialdian sartuko diren lanpostuak zehazteko irizpideak:

– 2005eko abenduaren 31n bitarteko langileek betetzen zituzten lanpostu hutsak.

– 2005eko abenduaren 31n hutsik zeuden eta orain bitarteko langileek betetzen dituzten lanpostuak.

Ordenación Sanitaria de Euskadi y la Ley 55/2003, de 16 de diciembre, de Estatuto Marco del Personal Estatutario de los servicios de salud.

La Mesa sectorial de Sanidad inicia en el segundo semestre del año 2005 el proceso negociador que dará lugar a una nueva Oferta Pública de Empleo, todo ello teniendo en cuenta lo dispuesto en el Decreto 304/1987, de 6 de octubre, de órganos de representación, regulación del proceso electoral, determinación de las condiciones de trabajo y participación del personal al servicio de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, modificado por Decreto 228/1990, de 4 de septiembre.

En el proceso de negociación desarrollado en el marco de la Mesa Sectorial de Sanidad, que culminó en Acuerdo de fecha 10 de julio de 2006 suscrito con las centrales sindicales CCOO, SME, LAB y UGT, se establecieron las condiciones generales que debían servir de base para la articulación de la Oferta Pública de Empleo de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

De conformidad con lo expuesto, a propuesta de la Directora General, y de acuerdo a lo previsto en el artículo 8.5.f) de los Estatutos del Ente Público, el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de Salud adopta el siguiente,

ACUERDO:

***Primero.***– Se acuerda la convocatoria de una Oferta Pública de Empleo en Osakidetza para el acceso a la condición de personal estatutario fijo. La gestión de las actuaciones para el inicio de los procesos selectivos se iniciará inmediatamente alcance la necesaria virtualidad jurídica el presente Acuerdo.

***Segundo.***– Se acuerda la convocatoria de una ulterior Oferta Pública de Empleo una vez finalizada la presente convocatoria, en el segundo semestre del año 2008, convocatoria en la que se incluirán, en los términos que en concreto se acuerden, las plazas vacantes como consecuencia de las bajas vegetativas del sistema así como las plazas de la plantilla estructural de Osakidetza de nueva creación por el compromiso de consolidación del empleo de la organización y de crecimiento neto de la plantilla por creación de nuevos servicios en el período. Antes de la convocatoria de la misma se celebrará al menos un concurso de traslados.

***Tercero.***– Los criterios para la determinación de los puestos a incluir en la convocatoria a desarrollar el año 2006 son los siguientes:

– Puestos vacantes ocupados por personal interino en fecha 31 de diciembre de 2005.

– Puestos vacantes ocupados por personal interino que se encontraban en situación de vacante en fecha 31 de diciembre de 2005.

– 2005eko abenduaren 31n hutsik zeuden eta orain zerbitzu-eginkizunetan beteta dauden lanpostuak.

– Aldi baterako barne-sustapenez betetako lanpostuak.

– Osasun-sektoreko Mahaiaren 2005eko urriaren 21eko Erabakiaren bidez onartutako lekualdatze-lehiaketaren deialdian ateratako lanpostuak (Osakidetzako zuzendari nagusiak azaroaren 17an emandako 1429/2005, 1430/2005, 1431/2005, 1432/2005 eta 1433/2005 ebazpenen bidez egin zen lehiaketaren deialdia), hain zuzen ere lehiaketaren faseetan esleitzen ez diren lanpostuak, eta ondoriozko fasea bukatu ondoren esleipendunek hutsik uzten dituztenak.

– Gaur egun aldi baterako langileekin beteta dauden 300 lanpostu. Osakidetza osoan hutsik dauden lanpostuak egokitu edo birmoldatuz erabaki honen helburua den enplegu-sendotzea lortzeko prozesuaren ondoriozkoak dira lanpostu horiek.

– Gaur egun aldi baterako langileekin beteta dauden 300 lanpostu. Erabaki honen helburua betetzeko, hau da, erakundean enplegua sendotzeko, Osakidetzaren egitura-plantillan sortutako 300 lanpostu berriak dira horiek (eranskinean ikus daitezke).

– Lanpostu hutsak erregelamenduaren arabera bete arte, salbuespen gisa 2006ko ekainean lehen-mailako arretako eskualdeei atxiki zitzaizkien eta bitarteko fakultatibo izendatutako 11 langileek betetzen dituzten plazak. Eranskinean ikus daitezke.

Beraz, irizpide horien arabera, erabaki hau sinatzeko datan guztira 4.261 dira eskainitako lanpostuak. Horiek guztiak erabaki honen eranskinetan jasota daude, eta zuzendu egin ahal izango dira akatsen bat antzemanez gero.

*Laugarrena.–* Lan-eskaintza publiko hau lehiaketa-oposizio sistemaren bidez gauzatuko da. 100 puntu emango zaizkio oposizio-aldiari eta 60 lehiaketa-aldiari, oinarri orokorretan eta deialdi bakoitzean ezarritakoarekin bat etorriz eta Euskararen erabilera Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak ezarritakoa betez. Edonola ere, gutxienez 50 puntu lortu beharko dira oposizio-aldia gainditzeko. Prozesu honen ondoriozko jarduera guztietan publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipio orokorrak aplikatuko dira, eta ahalik eta gardentasunik handiena bilatuko da.

*Bosgarrena.–* Osakidetzako langileen garapen profesionala ahalbidetzeko eta indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz, barne-sustapeneko txanda bat ezarri da, langile finkoek lanbide-kategoria eta espezialitatea aldatzeko aukera izan dezaten.

– Puestos que estando en situación de vacante en fecha 31 de diciembre de 2005 están actualmente ocupados mediante comisión de servicios.

– Puestos ocupados mediante promoción interna temporal.

– Puestos convocados en el concurso de traslados aprobado mediante el Acuerdo de 21 de octubre de 2005 de la Mesa Sectorial de Sanidad, convocado mediante Resoluciones 1429 a 1433/2005, de 17 de noviembre, de la Directora General de Osakidetza, que no resulten adjudicados en cualquiera de las fases del concurso, así como, los que dejen vacantes los adjudicatarios una vez finalizada la fase de resultas.

– 300 puestos de trabajo, ocupados actualmente por trabajadores con relación de empleo temporal, como consecuencia del proceso de consolidación de empleo objeto del presente Acuerdo mediante la adecuación ó reconversión de plazas vacantes existentes en el conjunto de Osakidetza.

– 300 puestos de trabajo, actualmente ocupados por trabajadores con relación de empleo temporal, objeto del oportuno incremento de la plantilla estructural de Osakidetza en las 300 plazas recogidas en el anexo, como consecuencia del proceso de consolidación de empleo en la organización objeto del presente Acuerdo.

– Las 11 plazas de Facultativo adscritas con carácter excepcional a las Comarcas de Atención Primaria en junio de 2006 para la formalización del oportuno nombramiento interino hasta la cobertura reglamentaria de la vacante, puestos recogidos en el anexo.

El número de puestos así ofertados, conforme a estos criterios, a la fecha de la firma de este Acuerdo, asciende a la cantidad total de 4.261, recogidos en los anexos al presente Acuerdo, que podrán ser objeto de la oportuna subsanación si se apreciara algún error en los mismos.

*Cuarto.–* La presente Oferta Pública de Empleo se desarrollará con arreglo al sistema de concurso oposición, correspondiendo 100 puntos a la fase de oposición y 60 a la fase de concurso, con arreglo a lo dispuesto en las bases generales y de las respectivas convocatorias, cumpliendo lo establecido en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza. En todo caso será preciso alcanzar un mínimo de 50 puntos para considerar superada la fase de oposición. Todas las actuaciones derivadas de este proceso se someterán a los principios generales de publicidad, igualdad, mérito y capacidad, buscando la máxima transparencia.

*Quinto.–* Con el fin de posibilitar el desarrollo profesional de los trabajadores y trabajadoras de Osakidetza, se establece de acuerdo con la normativa en vigor un turno de Promoción Interna del personal fijo para el cambio de categoría profesional, y especialidad.

*Seigarrena.–* Bestalde, deialdi honetako txanda irekian ateratako lanpostuen ehuneko bost, ehuneko hogeita hamahiruko edo hortik gorako urritasuna duen jendeak betetzeko gordeko da. Lanpostu horiek betetzeko, hautaprobak gainditu beharko dira eta adierazitako urritasun-maila eta dagozkion lan eta zereginak egiteko bateraezintasunik ez izatea egiaztatu beharko da. Aipatutako kopurua deialdiko lanbide-kategoria bakoitzean aplikatuko da. Eskainitako kategoriako lanpostuak hogei baino gutxiago badira, gordetako portzentajearen kopurua lanbide-talde osoa kontuan hartuta doituko da.

*Zazpigarrena.–* Deialdi honetan Antolamendu Sanitarioaren Legeko hirugarren xedapen iragankorra aplikatuko zaie Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea indarrean jarri zenean bitarteko funtzionarioak edo administrazio-kontratudunak ziren langileei, lege horrek adierazitako moduan, eta baita Auzitegi Gorenak 2005eko apirilaren 16an emandako 888/2002 Epaia aplikatu behar zaien langileei ere, hau da, lege hori indarrean jarri zenean edozein lan-harreman motarekin eta deialdi honetara arte etenik gabe lanpostuan jarraitu duten langileei.

Oposizio-aldia gainditzen ez duten langileek betetako lanpostuak, Antolamendu Sanitarioaren Legeko hirugarren xedapen iragankorrak aurreikusitakoaren arabera, hutsik geldituko dira, eta esleitu beharreko behin betiko zerrendan eskainiko dira. Beraz, hautagaiek aukera ditzaketen plazak gehitu egingo dira, bai barne-sustapeneko txandakoentzat eta, hala badagokio, baita txanda librekoentzat ere.

Osasun-sektoreko Mahaiak 2001eko azaroaren 12an hartutako Erabakiaren arabera, oraingo erabaki honetako eranskinean sartuta dauden pertsonei dagozkien plazetan, larrialdietako zerbitzuen 1989ko deialdiak eragiten badie, plazak eskuratzeko dagokien sistema aplikatuko da.

*Zortzigarrena.–* Era berean, eta deialdi honen kudeaketa ahalik eta zabal, garden eta bizkorrena izan dadin, gogorarazten da barne-sustapeneko txandan plaza lortzeagatik kategoria aldatu duten langileek hutsik utzitako lanpostuak behin eta denak batera gehituko zaizkiela txanda libreko hautagaiei eskaini beharreko plazei. Bestalde, lanpostua lortu duten hautagaiek lanpostua jabetzan hartu bai baina sektore publikoan zerbitzuak eskaintzen aritzeagatik eszedentzian daudelako edo borondatezko eszedentzian daudelako lanean benetan hasi ez badira, lanpostu horiek hutsik geldituko dira; baita plazari uko egindako lanpostuak ere. Horiek guztiek behin eta denak batera gehituko zaizkie hautapenean eskainitako plazei, hautapeneko lehenengo fasea bukatu ondoren.

*Sexto.–* Así mismo se reserva un cupo del 5 por 100 de los puestos convocados en la presente convocatoria en el turno libre para ser cubiertos entre personas con discapacidad de grado igual o superior al 33 por 100, siempre que superen las pruebas selectivas y que acrediten el indicado grado de discapacidad y la compatibilidad con el desempeño de las tareas y funciones correspondientes. La selección del cupo señalado se llevará a cabo por cada una de las categorías profesionales objeto de convocatoria; en el supuesto de que los puestos de la categoría ofertados no alcanzaren el número de veinte, se procederá al ajuste del porcentaje de reserva por el resto del grupo profesional.

*Séptimo.–* La presente convocatoria contempla la aplicación de la Disposición Transitoria Tercera de la Ley de Ordenación Sanitaria a aquel personal que ostentara la condición de personal funcionario interino o contratado administrativo a la fecha de entrada en vigor de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, en los términos por ésta expresados, así como al personal que le fuera de aplicación la Sentencia del Tribunal Supremo 888/2002, de 16 de abril de 2005, es decir, personal cualquiera que fuera su relación de empleo a la entrada en vigor de dicha Ley que se hubiera mantenido en el desempeño del mismo puesto de trabajo sin solución de continuidad hasta la presente convocatoria.

Los puestos desempeñados por aquel personal entre los incluidos en este apartado que no hubieran aprobado la fase de oposición y que, en consecuencia, debieran cesar en su desempeño según lo previsto en la Disposición Transitoria Tercera de la LOS, serán ofertados en la relación definitiva de destinos a adjudicar, acreciendo las plazas correspondientes a la elección de los aspirantes, tanto del turno de promoción interna como, en su caso, del turno libre.

En los términos contemplados en el Acuerdo adoptado por la Mesa Sectorial de Sanidad de 12 de noviembre de 2001 las plazas correspondientes a las personas incluidas en el anexo al presente Acuerdo afectados por la convocatoria de 1989 del servicio de urgencias, se les aplicará el correspondiente sistema de acceso.

*Octavo.–* Así mismo, y con la finalidad de dar la mayor amplitud, transparencia y celeridad a la gestión de la presente convocatoria, se acuerda que las vacantes que se generen con ocasión del cambio de categoría por el personal que acceda a la correspondiente plaza en el turno de promoción interna, acrecerán de una sola vez a la totalidad de las plazas a ofrecer a los aspirantes en el turno libre. Por otro lado, las vacantes que se generen como consecuencia de la no efectiva incorporación tras la toma de posesión por parte de los aspirantes que las hayan obtenido y resulten en situación respecto de las mismas de excedencia por prestar servicios en el sector público o voluntaria y las renuncias acrecerán de una sola vez a las plazas objeto de selección, una vez agotada la primera fase de elección.

*Bederatzigarrena.–* Hautaketa-prozesuak garatzeko jardueren kudeaketa oinarri orokorrek eta lehiaketa-oposizioko deialdi bakoitzaren oinarri bereziek ezarritakoaren arabera egingo da.

Deialdi horiek Osakidetzako zuzendari nagusiaren ebazpenen bidez egingo dira, eta beroietan deialdiko helburu diren plazak (kategoria eta destinoa) identifikatuta adieraziko dira. Erabaki honetako helburu diren eta une honetan identifikatu gabe dauden (kategoria eta destinoa) plazak deialdiaren ondoren emango dira argitara, Osakidetzako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, plaza lortzen duten langileek destinoa aukeratzeko eskaintza egin aurretik.

*Hamargarrena.–* Hautaketa-prozesuko oposizio-aldian egingo diren ariketetan emandako erantzun okerrengatik ez punturik kentzea erabaki da.

*Hamaikagarrena.–* Familia-mediku, mendeko eta zerbitzuetako langileen kategorietarako galdera-multzo itxia egiteko aukera emango duten jarduerak egingo ditu Osakidetzak, eta, lortutako emaitzen arabera, sistema hau hedatuko da ondorengo deialdietako kategorietara (deialdi horiek dagozkien oinarriekin batera argitaratuko dira).

*Hamabigarrena.–* Deialdi honen lehiaketa-aldian, oposizio-aldia gainditu bai baina Euskararen erabilera Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuaren arabera dagokien hizkuntza-eskakizuna ez daukaten hautagaiek eskakizun hori egiaztatzeko azterketa egingo du Osakidetzak.

*Hamahirugarrena.–* Gaur egungo titulazio akademikoa arauzko eskakizun berrietara egokitu eta homologatu beharra duten pertsonen parte-hartzea errazteko, eskatutako titulazioaren egiaztapena destinoa aukeratzeko unean egingo da, betiere hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea aurkezterako unean titulaziorako eskatzen ziren baldintza guztiak betetzen baziren. Zentzu berean, hizkuntza-eskakizunaren egiaztapena (eskakizun hori duten plazetarako) eta informatika-ezagupenen (IT Txartela) egiaztapena (Administrari eta Administrari laguntzaileen kategorietako lanpostuetarako) destinoa aukeratzeko unean egingo da. Agiri horiek merezimendu gisa baloratzeko aurkeztu nahi direnean, aldiz, lehiaketa-faseko baremazioa egiteko agiriak aurkezteko unean formalizatu beharko dira.

*Hamalaugarrena.–* Osakidetzan lotura finkorik gabe zerbitzuak eskaini dituzten hautagaiei, gaur egun ezin baldin badute kategoria horietako postuetarako lehian sartu arautegia aldatu izanagatik kategoria desagertu delako edo orain eskatzen den titulazioa ez dau-

*Noveno.–* La gestión de las actuaciones para el desarrollo de los procesos selectivos se realizará conforme a lo que determinen las bases generales y las específicas de las respectivas convocatorias del concurso oposición.

Dichas convocatorias se llevarán a efecto mediante Resolución dictada por la Directora General de Osakidetza, que hará públicas en un primer momento las plazas identificadas (categoría y destino) objeto de la convocatoria. Las plazas objeto del presente Acuerdo no identificadas en este momento (categoría y destino) serán hechas públicas posteriormente a la convocatoria mediante Resolución de la Directora General de Osakidetza con anterioridad a la oferta de la elección de destino por el personal que obtenga plaza.

*Décimo.–* Se acuerda no penalizar las respuestas negativas de los distintos ejercicios de la fase de oposición que puedan realizarse en el desarrollo del proceso selectivo.

*Decimoprimero.–* Osakidetza desplegará las actuaciones necesarias para posibilitar la elaboración de unas baterías cerradas de preguntas para las categorías de Médico de Familia, Subalterno y Operario de Servicios, y en función de los resultados obtenidos se tenderá a extender este sistema a cada una de las categorías objeto de ulteriores convocatorias, que se harán públicas junto a las bases de las mismas.

*Decimosegundo.–* Osakidetza celebrará en el curso de la presente convocatoria una prueba para la acreditación de los perfiles lingüísticos de los candidatos que hayan superado la fase de oposición y no dispongan de la oportuna acreditación del perfil en los términos del Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza.

*Decimotercero.–* Con la finalidad de facilitar la participación de las personas que requieran de la oportuna adecuación y homologación de su titulación académica actual a las nuevas exigencias normativas, la acreditación de la tenencia de la titulación exigida se realizará al momento de la elección de destino, siempre y cuando los requisitos precisos para disponer de la misma se cumplan al momento de la presentación de la solicitud para participar en el proceso selectivo. En el mismo sentido, la acreditación del perfil lingüístico para el caso de plazas con tal requisito y del conocimiento de informática (IT Txartela) para los puestos de las categorías de Administrativo y Auxiliar Administrativo se realizará al momento de la elección de destino, si bien para su valoración como mérito deberá formalizarse como máximo al momento de presentar la documentación por los candidatos para la baremación de la fase de concurso.

*Decimocuarto.–* Los candidatos que hayan prestado servicios con una vinculación no fija en Osakidetza en puestos de categorías a las que no puedan optar en la actualidad por desaparición de la categoría por modificación normativa o por no poseer la titulación exigi-

katelako, bete duten lanpostuan pilatutako antzinatasuna baloratuko zaie, baina lanbide-talde bereko edo beheragoko prozeduretan eta behin bekarrik. Hautagaiak berak erabakiko du, titulazio nahikoa duen zein prozeduretan nahi duen antzinatasuna baloratzea. % 75eko portzentajearen araberako balorazioa emango zaio.

***Hamabosgarrena.***– Osakidetzan Erizaintzako Laguntzaile kategoriako erizaintzako laguntzaile plaza daukaten langileek, 1984ko ekainaren 14ko Agindua indarrean jarri zenean osasun-arloko teknikari espezialista lanetan jardun baziren, eskabideak aurkezteko azken egunean dagokien espezialitateko Osasun arloko Teknikari Espezialista titulazioa baldin badaukate, eta barne-sustapeneko txandan plaza lortzen badute, gaur egun betetzen ari diren plaza eta destinoan jarraitu eta lanbide-kategoria berria finkatzeko aukera daukate.

***Hamaseigarrena.***– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina erabaki honek.

Bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko uztailaren 20a.

Administrazio Kontseiluko lehendakaria,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

da de forma sobrevenida, dispondrán por una única vez de la posibilidad de que se les valore el mérito de la antigüedad en el puesto efectivamente desempeñado para el procedimiento de acceso a una única categoría del mismo grupo profesional o del inferior, a elección expresa del candidato, para la que dispongan de titulación suficiente, computando la misma en un porcentaje del 75%.

***Decimoquinto.***– El personal Auxiliar de Enfermería con plaza en propiedad en la categoría de Auxiliar de Enfermería en Osakidetza, que viniera desempeñando funciones de Técnico Especialista Sanitario a la entrada en vigor de la Orden de 14 de junio de 1984 y que el último día del plazo para la presentación de solicitudes se encuentre en posesión del título de Técnico Especialista Sanitario de la especialidad correspondiente, que obtuviera plaza de Técnico Especialista por el turno de promoción interna, podrá optar por mantenerse en la plaza y destino actual consolidando la nueva categoría profesional.

***Decimosexto.***– El presente Acuerdo surtirá efectos desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra el mismo podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de julio de 2006.

El Presidente del Consejo de Administración,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

LEPan ESKAINTZEKO PLAZAK

| BETETZEKO MODUA | GUZTIRA | A1 Fakultatibo med. eta tek. | A2 Goi mailako teknikariak | B1 Osasun arloko diplomatuak | B2 Erdi mailako teknikariak | C1 Osasun arloko tek. espez. | C2 Admin. tek. espez. | C3 Tek. espez. profesionalak | D1 Osasun arloko tek. lag. | D2 Admin. tek. lag. | D3 Tek. lag. profesionalak | E1 Mendeko langileak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bitartekoak (2005-12-31) | 2.674 | 723 | 39 | 695 | 19 | 151 | 8 | 29 | 426 | 280 | 42 | 262 |
| Bitartekoak (hutsik 2005-12-31n) | 122 | 18 | 3 | 38 | | 4 | | 1 | 25 | 10 | 2 | 21 |
| Zerbitzu Eginkizunak (hutsik 2005-12-31n) | 44 | 14 | | 7 | | 5 | | 1 | 7 | 4 | 1 | 5 |
| Barne Sustapenak | 215 | 6 | 4 | 55 | 4 | 27 | 8 | 3 | 59 | 24 | 3 | 22 |
| LEP DEIALDIA, GUZTIRA | 3.055 | 761 | 46 | 795 | 23 | 187 | 16 | 34 | 517 | 318 | 48 | 310 |
| LANPOSTU BERRIAK FINKATZEA | 292 | 92 | 8 | 65 | 1 | 14 | 4 | 8 | 15 | 39 | 11 | 35 |
| LANPOSTU BERRIAK ESLEITZEA | 300 | 150 | 4 | 100 | 1 | 15 | | | 15 | 15 | | |
| LEHEN MAILAKO ARRETAKO DOTAZIO BERRIA | 11 | 11 | | | | | | | | | | |
| LEKUALDATZE LEHIAKETAREN ONDORIOAK | 603 | 124 | 9 | 196 | 3 | 18 | 15 | | 93 | 72 | 10 | 63 |
| GUZTIRA | 4.261 | 1.138 | 67 | 1.156 | 28 | 234 | 35 | 42 | 640 | 444 | 69 | 408 |

*PLAZAS OFERTABLES EN OPE*

| *MODALIDAD DE COBERTURA* | *TOTAL* | *A1 Facultativos Méd. y Téc.* | *A2 Técnicos Superiores* | *B1 Diplomados Sanitarios* | *B2 Técnicos Medios* | *C1 Téc. Espec. Sanitarios* | *C2 Téc. Espec. Admón.* | *C3 Téc. Espec. Profesionales* | *D1 Téc. Aux. Sanitarios* | *D2 Téc. Aux. Admón.* | *D3 Téc. Aux. Profesionales* | *E1 Subalternos Operarios* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Interinos (31-12-2005)* | *2.674* | *723* | *39* | *695* | *19* | *151* | *8* | *29* | *426* | *280* | *42* | *262* |
| *Interinos (Vacantes a 31-12-2005)* | *122* | *18* | *3* | *38* | | *4* | | *1* | *25* | *10* | *2* | *21* |
| *Comisiones de Servicios (Vacantes a 31-12-2005)* | *44* | *14* | | *7* | | *5* | | *1* | *7* | *4* | *1* | *5* |
| *Promociones Internas* | *215* | *6* | *4* | *55* | *4* | *27* | *8* | *3* | *59* | *24* | *3* | *22* |
| *TOTAL CONVOCATORIA OPE* | *3.055* | *761* | *46* | *795* | *23* | *187* | *16* | *34* | *517* | *318* | *48* | *310* |
| *CONSOLIDACIÓN NUEVOS PUESTOS* | *292* | *92* | *8* | *65* | *1* | *14* | *4* | *8* | *15* | *39* | *11* | *35* |
| *NUEVAS ASIGNACIONES DE PUESTOS* | *300* | *150* | *4* | *100* | *1* | *15* | | | *15* | *15* | | |
| *NUEVA DOTACIÓN ATENCIÓN PRIMARIA* | *11* | *11* | | | | | | | | | | |
| *RESULTAS CONCURSO DE TRASLADOS* | *603* | *124* | *9* | *196* | *3* | *18* | *15* | | *93* | *72* | *10* | *63* |
| *TOTAL* | *4.261* | *1.138* | *67* | *1.156* | *28* | *234* | *35* | *42* | *640* | *444* | *69* | *408* |